

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Sanz Lehendakariak Espainian Suitzako enbaxadore denari egin dio harrera

Suitzako ordezkaria Nafarroa bisitatzera etorri da energia berriztagarrien eta bioteknologiaren alorrean lortutako garapen maila altuaren berri izateko

Viernes, 06 de mayo de 2011

Miguel Sanz Sesma Nafarroako Lehendakariak, atzo, osteguna, Espainian dagoen Suitzako enbaxadako ordezkariari, Urs Ziswiler-i, eta Bilbon Suitzako kontsula denari, Markus Schaubi, egin zien harrera Nafarroako Jauregian. Suitzako ordezkaria Nafarroa bisitatzera etorri da energia berriztagarrien eta bioteknologiaren alorrean lortutako garapen maila altuaren berri izateko.



Sanz Lehendakaria eta Urs Ziswiler Suitzako enbaxadorea

Topaketan, halaber, Berrikuntza, Enpresa eta Lan kontseilariak, José María Roig Aldasorok, eta Enpresa saileko zuzendari nagusiak, Begoña Urien Angulok, hartu zuten parte eta bisitariak Nafarroako Gobernuak enpresen inbertsiorako eta enplegua sortzeko ematen dituen laguntza politiken berri izateko balio izan zuen.

Programaren amaieran, Energia Berriztagarrien arloko Zentro Nazionala (CENER) eta Medikuntza Aplikatuako Ikerketa Zentroa (CIMA) ikustera joan ziren.

Urs Ziswilerrek (1949, Muri) Suitzako enbaxadorearen kargua du Espainian 2011ko urtarriletik. Horren aurretik Kanadan, Bahametan eta Estatu Batuetan diplomaziako ordezkari izan da.